

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3325

AGINDUA, 2012ko uztailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, 2012. urtean hastekoak diren ikerkuntza sanitarioko proiektuei laguntzak emateko deialdia egiteko dena.

Osasun eta Kontsumo Sailaren eskumenetako bat da osasun-zientzien arloan ikerkuntza-jarduerak sustatzeko eta planifikatzeko eginkizuna, Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-sistema garatu eta hobetzeko funtsezko elementua baita.

Ikerkuntza Bultzatu eta Koordinazio Orokorra egiteko apirilaren 14ko 13/1986 Legeak, Osasuneko Lege Orokorriari buruzko apirilaren 25eko 14/1986 Legeak eta Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1987 Legeak ikerkuntza sanitarioa sustatzeko erreferentzia-marko bateratu bat eskaintzen dute eta era eraginkorragoan funtzionatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

Osasun eta Kontsumo Sailak, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren bidez, ikerkuntza-ildo berriak sustatzea du helburu, bai eta ikerkuntza sanitarioaren eremuan sartzen diren profesionalen nodo berriak bilatzea ere; horretarako, hainbat ekintza planifikatu ditu, hala nola: beka deialdi bidez ikertzaileak prestatu, ikerkuntza-proiektuak finantzatu eta Osasun Saileko pertsonal ikertzaileei Europako eta estatuko diru-laguntza publiko bidez lagundutako ikerkuntza-proiektuetan parte hartzeko aukera eman.

Deialdi honetako lehentasunezko arloak Osasun eta Kontsumo Sailak legegintzaldi honetarako ezarritako estrategian sartzen dira, eta honako hauek dira: gaixotasun kronikoak; ospitaleko medikuntza integratzea lehen mailako arretarekin, etxeko arretarekin eta arreta sozio-sanitarioarekin; eta teknologia berriak garatzea eta pazienteei aplikatzea.

Horregatik guztiagatik, aintzat harturik Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketaren sistema orokorra arautzen duen eta hura kudeatzen parte hartzen duten entitate laguntzaileen baldintzak, erregimena eta obligazioak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (1998ko urtarrilaren 19ko EHAA), honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen helburua da 2012. urtean garatzen hasten diren ikerkuntza sanitarioko proiektuetarako deialdia arautzea eta laguntza ekonomikoak ematea, betiere objektibotasun-, norgehiagoka- eta publikotasun-printzipioei jarraikiz.

2. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen proiektuak.

1.– Ikerkuntza-proiektuak honako arlo hauetan egin daitezke: Ikerkuntza Biomedikoa, Teknologia eta Zerbitzu Sanitarioak Ebaluatzen Ikerkuntza edo Ekintza Bidezko Ikerkuntza.

Deialdi honen ondorioetarako, Ikerkuntza Biomedikoaren barruan honako hauek sartzen dira: oinarritzko ikerkuntza (gaixotasunak ardatz hartuta), klinikoa (pazienteak ardatz hartuta),

epidemiologikoa, osasun publikoko eta zerbitzu sanitarioetako ikerkuntza, eta osasuna hobetzera bideratutako garapen teknologikoa, edo ikerkuntza biomedikoko prozesuak eta teknologiak hobetzera bideratutakoa.

Bestalde, Teknologiak eta Zerbitzu Sanitarioak Ebaluatzeko Ikerkuntzaren bidez ebaluatu egin nahi da zuzeneko eta zeharkako teknologia sanitarioak erabiltzearen ondorioz, epe labur nahiz luzean izaten diren ondorio kliniko, sozial, ekonomiko, legal eta etikoak, nahita lortu nahi direnak eta nahi gabekoak; alde horretatik, teknologia sanitariotzat hartuko dira pertsona osasuntsu zein gaixoen banakako beharrianak eta beharrian kolektiboak asebetetzea helburu dutenak, hala nola, sendagaiak, ekipamenduak, dispositibo eta prozedura medikoak, antolamendu-eredu eta laguntza-sistemak (telemedikuntza, e-osasuna, informazio-sistemak,...). Ikerkuntza-arlo horretan, halaber, beste alderdi hauek landuko dira: osasun-zerbitzuak, osasun-estrategiak, pazientearen segurtasunerako estrategiak, Osakidetzaaren laguntza-jardueraren hobekuntza, sektore estrategikoen arloko ikerkuntzaren sustapena, eta berdintasunaren sustapena.

Ekintza Bidezko Ikerkuntza lankidetzaren parte-hartzea oinarri dituen ikerkuntza-metodo bat da. Ikerkuntza eta ekintza barne hartzen ditu, eta, etengabeko ikaskuntza ahalbidetzen duen prozesu zikliko baten bidez, osasun-sisteman aplikatzekoak diren hobekuntzak lortzea du xede. Lehenetsunez jotzen da ikerkuntza-mota hori gaixotasun kronikoen eremuaren gestioan fokalizatzea, arlo horretako funtsezko alderdiak aintzat hartuta, hala nola, prebentzioa, biztanleriaren gaineko ikuspegiaren garapena, eta, bereziki, laguntza-mailen eta –prozesuen integrazioa (lehen mailakoa, espezializatua, etxekoa, gizarte-arlokoa eta abar); horrekin batera, eginahalak egingo dira zaintzei jarraitutasun handiagoa ematen. Metodo hau gauzatzeko, esperientzia pilotuak jarriko dira abian, helburu hartuta laguntza-jardun klinikoa eta/edo antolamendu-arlokoa hobetzea. Prozesuan lortutako ezagutza osasun-sistema osoan ezarri eta zabalduko da.

2.– Laguntzak eskatzen dituzten proiektuek ikertzaile nagusi bakarra izango dute, eta berak izango du proiektuaren gauzatze zientifiko-teknikoaren gaineko ardura.

3.– Aurkeztutako ikerkuntza-proiektuek Helsinkiko Adierazpenean ezarritako oinarrizko printzipioak eta ikerkuntza medikoaren arloan indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak errespetatu beharko dituzte.

3. artikulua.– Onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoan dauden I+G-ko zentro publiko eta pribatuek eskatu ahal izango dituzte deialdi honetan adierazitako laguntzak, betiere diru-laguntza publikoak lortzeko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiarekin kontratatzeko ezgaituta ez badaude.

Ondorio horietarako, I+G-ko zentro publiko/pribatu diogunean zera ulertuko dugu:

a) I+G-ko zentro publikoa: entitate eta instituzio sanitario publikoak, unibertsitate publikoak, onartutako ikerkuntza-entitate publikoak eta, oro har, herri administrazioaren menpe dagoen I+G-ko edozein zentro.

b) I+G-ko zentro pribatua: entitate eta instituzio sanitario pribatuak, unibertsitateak eta bestelako entitate pribatuak, izaera juridiko propiodunak, I+G-ko ekintzetan egiaztatutako gaitasuna edo jardura dutenak.

2.– Eskerak aurkezteko unean, zentro eskatzaileek zerga-betebeharrak egunean beteta edo horietatik salbuetsita egon beharko dute. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko du baldintza hori betetzen dela, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun

Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 50.3 artikuluan xedatukoari jarraituz (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

3.– Entitateek jaso badituzte ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren entitate autonomiadunen eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulera– edo zigor-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu horrek amaituta egon behar du, entitate horiei diru-laguntza hau esleitzeko edo esleituta dutenei dagokiena ordaintzeko.

4. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedura.

Adierazitako laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Laguntzak emateko, eskabideak konparatuko dira, euren artean lehentasuna ezartzeko. Lehentasuna 12. artikuluan ezarritako balorazio irizpideei jarraituz ezarriko da, eta laguntzak emango dira harik eta deialdian esleitutako kredituak agortu arte.

5. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi hau finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoen zenbateko osoa 1.613.234,65 eurokoa da (milioi bat seiehun eta hamahiru mila berrehun eta hogeita hamalau euro eta hirurogeita bost zentimo). Baliabide ekonomiko horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik datoz.

2.– Bereziki aintzat hartuko dira ikerkuntza-talde hasiberriek garatutako proiektuak, betiere 12. artikuluan eskatzen den gutxienerako puntuazioa lortzen badute. Talde bat hasiberritzat hartuko da, baldin eta proiektu batean halako ardura-mailarekin inoiz aritu ez den ikertzaile nagusi bat badu eta ikertzaileen taldean esperientzia egiaztatua dutenak % 20 baino gutxiago badira. Halako proiektuak finantzatzeko, deialdi honetako baliabide ekonomiko guztietatik % 10 erabiliko da, gutxienez.

6. artikulua.– Proiektuek bete beharreko baldintzak.

1.– Laguntzak jaso ahal izateko, ikerkuntza-proiektuek 2012. urtean hasitakoak eta diziplina eta zentro anitzekoak behar dute izan. Proiektu bat zentro anitzekoa izateko, gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoko bi osasun-zentrok hartu behar dute parte, bai eta gutxienez zentro bakoitzeko bi ikertzailek ere. Salbuespenez, eta ikertu beharreko eremuaren espezifikotasuna dela-eta, osasun-zentro ikertzaile nahikorik ez badago zentro-aniztasunaren baldintza betetzeko, baldintza hori betetzetik salbuetsi egingo dira.

2.– Ikerkuntza biomedikoko proiektuak gutxienez bi urtekoak izango dira, eta gehienez hirukoak. Ekintza bidezko ikerkuntza-proiektuak eta teknologiak eta zerbitzu sanitarioak ebaluatzeak, berriz, urtebetetik bi urtera bitartekoak izango dira.

3.– Proiektua gauzatzeko epea, bestalde, laguntzak emateko ebazpena EHAA-n argitaratu ondorengo hamazazpigarren egunean hasiko da.

7. artikulua.– Ikertzaile nagusiak, taldeko gainerako ikertzaileek eta bekadunek bete beharreko baldintzak.

1.– Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Eskatera egin duen I+G-ko zentro publiko edo pribatuarekin funtzionario-, estatutupeko- edo kontratu-lotura gauzatua izatea, gutxienez eskabidea aurkeztu den unearen eta onarpenaren arteko aldi.

b) Osasun prestakuntza espezializatuko programarik egiten ez aritzea.

c) Eskaera egiten duten unean, ikertzaile nagusiek ezingo dute gauzatze-fasean izan Osasun eta Kontsumo Sailaren deialdien bidez finantzatutako proiekturik.

d) Proiektu koordinatuetan, azpiproiektuetako ikertzaile nagusietako batek jardungo du koordinatzaile-lanetan. Azpiproiektu bakoitzaren ikertzaile nagusia horren erantzulea izango da ondorio guztietarako, proiektuaren koordinazio zientifikoari eta jarraipenari dagokionean izan ezik, alderdi horietaz koordinatzailea arduratuko baita.

2.– Ikertzaile-taldeko gainerako kideek:

a) Gehienez ere deialdi honetako bi proiektutan parte hartu ahal izango dute.

b) Ezingo dute aldi berean parte hartu Osasun eta Kontsumo Sailak finantzatutako bi ikerkuntza-proiektutan baino gehiagotan, nahiz eta proiektuok deialdi desberdinetan finantzatutakoak izan.

c) Ondorio horietarako, ez dira ikertzaile-taldeko kideetat hartuko Ikerkuntzari Laguntza emateko Unitate batekoak izan, baina aholkularitzako zereginak bakarrik egiten dituztenak.

8. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Kasu bakoitzean ematen den laguntzaren bidez, ondoren adierazten diren gastuak ordainduko dira. GASTU HORIEK GUZTIEK, proiektua gauzatzearekin zuzeneko lotura izan behar dute, eta eskabidearen memorian aldeztu aurretik zehaztuta egon behar dute.

Puntu bakoitzean adierazten diren zenbatekoak deialdiaren bidez finantzatutako gehienezko zenbatekoak dira, eta bateragarriak dira xede bererako lortutako beste diru-laguntza batzuekin.

1.– Bekadunen gastuak: zentro onuradun eta gauzatzailearekin kontratu bidezko loturarik izan gabe proiektuan parte hartzen dutenek eragindako gastuak. Behin deialdia ebatzi ostean, bekadunentzako finantzazioa ematea onartzen bada, ezingo da aukera hori aldatu.

Proiektu finantzarrietan bekadunek eragindako gastuak diruz laguntzeko aukera aztertuko du Balioespen Batzordeak, irizpide hauei jarraituz:

– Izangaiaren Curriculum Vitae: gehienez, 35 puntu.

– Prestakuntza-planaren kalitatea: gehienez, 65 puntu.

Prestakuntza-planak jarduera-multzo tekniko nahiz praktikoa bildu beharko du. Jarduera horiek, hain zuzen ere, osasun-ikerkuntzan eta –berrikuntzan hasteko beharrezkoa den ezagutza emango diote onuradunari. Gradu-ondoko zenbait irakaspen arautuk osatuko dute programa teorikoa, eta zientzia-ikerkuntzan eta –berrikuntzan parte hartzen duten elementu metodologiko zein instrumentalak irakastea izango dute helburu.

Irizpideok aplikatuta, prestakuntza-planak lortutako gutxieneko puntuazioa 60 puntutik gorakoa ez bada, ez da bekadunen gasturik finantzatuko.

Bekadunen lanaldi osoagatik, hau da, urteko 1.600 ordurengatik, 18.000 euro ordaindu beharko da, urtean. Proiektuan aritzeko lanaldia laburragoa izanez gero, ordaindu beharreko kopurua lanaldi horren arabera kalkulatu da, proportzioan.

Hiru urteko iraupena duten proiektuek baino ezingo dute eskatu bekadunak edukitzea.

Proiekturen batek deialdi honetako lehenagoko ekitaldi batean laguntzarik jaso badu, oraingo honetan ezin izango du bekadunik eskatu.

2.— Ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak nahiz langileak kontratatzeako gastuak; horien barruan honako hauek sartuko dira:

a) Material inbentariagarria, proiektua egiteko erabili dena. Kontzeptu horregatik ordaindu beharreko zenbatekoa ez da 18.000 eurotik gorakoa izango. Espresuki uzten dira deialdi honetatik kanpo altzariak eta instalazioak, baita kudeaketarako ekipamendu informatikoa erostea ere.

b) Material suntsigarria eta gainerako gastu osagarriak. Proiektua garatzeko beharrezkoa den heinean eta behar bezala justifikatzen denean, ez da mugarik egongo, material suntsigarria erosteko kontu-sailean. Atal honetan, material bibliografikoa ere sartzen da.

Era berean, honako hauek sartuko dira atal honetan: ikertzaile-taldeko kideek bilera zientifikoetara joateko sortutako gastuak eta ikerkuntzaren emaitzak zabaltzeko bestelako jarduerak (adibidez, artikulua argitara ematea). Kontzeptu horiengatik, 2.000 euroko gastua finantzatuko da, gehienez.

Bulegoko material orokorra ez da diruz lagunduko (fotokopiak, tonerra, telefono-gastuak, eta abar).

c) Proiektua garatzeko kanpoko zerbitzuak kontratatzea aurreikusita egonez gero, eskaeraren memorian aipatu beharko da, honako hauek zehaztuta: zerbitzuaren nolakotasuna, zein erakunde kontratatuko den eta kontratuaren kostua zehaztuta.

d) Teknikariak kontratatzea. Proiektua gauzatzeko beharrezko diren langileak. Kontratazioaren unean, ezin izango dute eduki funtzionario—, estatutu— edo lan-loturarik, zentro onuradunekin edo proiektua gauzatzeko duten zentroekin.

Teknikariak hautatzeko, publikotasun—, norgehiagoka— eta lehiaketa-printzipioak beteko dira.

Kontratazioarako gehieneko zenbatekoak honako hauek izango dira: urtean 29.500 euro, kontratatua goi-mailako tituluduna bada; 24.500 euro, erdi-mailako tituluduna bada; eta 20.500 euro, Lanbide Heziketako teknikaria bada.

Urteko lanaldia 1.600 ordu izango da. Proiektuan aritzeko lanaldia laburragoa izanez gero, ordaindu beharreko kopurua lanaldi horren arabera kalkulatu da, proportzioan.

Atal honetan, halaber, ikertzaileak ordezteko aukera sartzen da; izan ere, proiektu bakoitzean, ikertzaile baten lanaldiaren % 20 ordezteko onartuko da, gehienez. Proiektu batean, deialdiak finantzatzeko lanaldia baino dedikazio handiagoa egin behar badute ikertzaileek, zentro onuradunaren kontura izango da.

3.— Beste zenbait gastu, hala nola, bidaiak, landa-lanak eragindako joan-etorriak, koordinazio-bilerak eta abar; betiere proiektuarekin zuzenean lotuta badaude.

4.— Agindu honen babespean ematen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako erdietsi litekeen beste edozein motatako laguntza edo diru-laguntzarekin, baldin eta gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Halakorik gertatzen bada, emandako diru-laguntza dagokion gehienezko mugaraino murriztuko da.

5.— Ikertzaile-taldeko kideek —prestakuntza sanitario espezializatuan dauden lizentziatuek barne— ez dute inolako ordainsaririk jasoko proiektuaren kontura.

6.– Proiektua amaitu ondoren, emandako laguntzen kontura erositako material inbentariagarria eta bibliografikoa proiektua gauzatu duen zentroarentzat izango da, eta ikerketa-jardueretarako erabiliko da, nagusiki.

9. artikulua.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Eskabideak egiteko, Osasun eta Kontsumo Sailaren aplikazio informatikoa erabili ahal izango da, edo paper-formatuan aurkeztu.

2.– Eskabidea bide elektronikoz tramitatzeko, honako egoitza elektroniko hauetara jo behar da:

Gaztelaniaz:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkinve02/es/contenidos/informacion/docencia_ayudas_becas/es_docencia/ayudas_becas.html#proyectos_sanitarios

Euskaraz:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkinve02/eu/contenidos/informacion/docencia_ayudas_becas/eu_irakas/laguntzak_bekak.html#ikerlan_proiektueak

3.– Paper-formatuko eskabideak agindu honen II. eranskinean ageriduen inprimaki normalizatuaren bidez gauzatuko dira, eta proiektuaren ikertzaile nagusiak eta zentro eskatzailearen legezko ordezkariak sinatuko dituzte. Era berean, ikertzaile-taldeko gainerako kideek ere sinatu beharko dituzte, parte-hartzea onartzen dutela adierazteko.

4.– Eskabideak Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariari bidali behar zaizkio (Donostia kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz); era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduetan ere aurkez daitezke.

5.– Laguntzak eskatzeko epea hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

6.– Zentroek eurek hautatzen duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskabidea nahiz harekin batera eskatzen den dokumentazioa. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduera guztietan, eta prozedura osoan zehar, zentro eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoa betez.

10. artikulua.– Eskabideak: eskabide-inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabidearekin batera, honako hauek ere aurkeztu behar dira:

a) Ikerkuntza-proiektuaren memoria, eredu normalizatuari jarraituz (III. eranskina). Memoria horretan material inbentariagarri edo suntsikorrerako eskatutako zenbatekoak dokumentatzeko, gutxienez, bi aurrekontu erabiliko dira, eta bi aurrekontuak ezingo dira izan hornitzaile berberak egindakoak. Material horren aleko prezioak 500 euro baino gehiagokoa izan behar du, edo oso antzekoak diren unitateen zenbatekoak, guztira, 1.000 eurotik gorakoa izan behar du. Baldintza hori betetzen ez bada, c) idatzi-zatian –balorazio zientifiko-teknikoan– lortutako puntuazioari % 50 kenduko zaio.

b) Ikerkuntza taldeko kide bakoitzaren curriculum, eredu normalizatuari jarraituz (VI. eranskina).

c) Proiektua zentro eskatzailea ez den beste zentro batean gauzatzekoa bada, proiektua non gauzatuko den, zentro horrexen legezko ordezkariaren idazkia aurkeztuko du zentro eskatzaileak. Idazki horren bidez, proiektua gauzatzeko baimena emango da (V. eranskina).

d) Proiektua gauzatuko den zentroko Etika Batzordeak emandako baimena, eta ikerkuntza-arloko arauak eta hitzarmenak betetzen direla zaintzen duten kide anitzeko beste organo batzuek emandakoa. Kasu guztietan, kide anitzeko organoko lehendakariak edo idazkaritzak egingo du baimen hori, eta, bertan, akordioa hartu zen bileraren aktaren erreferentzia jasoko da.

e) I+Gko zentro pribatuak estatutuak aurkeztu beharko dituzte (betiere, aurreko deialdiren batean bidali ez badituzte), eta bertan adierazi, zer helburu duten, I+G ekintzetan nolako gaitasuna edo jarduerak egiaztatu dituzten, nolako lotura dagoen erakundearen eta ikertzaile nagusiaren artean, eta lotura hori noiz hasi eta noiz bukatuko den.

f) Proiektua gauzatuko duen zentroko Ikerkuntza Batzordearen edo pareko figuraren txostena; bertan, ikerkuntza-proiektua bere osotasunean bideragarria dela adierazi beharko da.

g) Proiektuen balioespenari begira, eta ikerkuntza-proiektuen emaitzak sektore produktiboan txertatzeko aukera baloratzeari begira, emaitza horietan interesa erakutsi duten enpresek izenpetutako idazkia aurkeztu dezake ikerkuntza-taldeak. Taldearen eta enpresaren artean lankidetzak akordioak egonez gero, horren kopia ere aurkez daiteke.

a), b) eta c) agiriaren plantilla normalizatuak helbide elektroniko honetan eskuratu daitezke:

http://www.osakidetza.euskadi.net/r85-pkinve02/es/contenidos/informacion/docencia_ayudas_becas/es_docencia/r01hRedirectCont/contenidos/ayuda_subvencion/investigacion_sanitaria_2011/es_5370/investigacion_sanitaria.html

Bestalde, d), e), f) eta g) idatzi-zatietan eskatzen diren agiriak euskarri elektroniko bidali beharko dira helbide hauetako batera: v-eguren@ej-gv.es edo docencia-san@ej-gv.es.

2.– Proiektu koordinatuak direnean, azpiproiektu bakoitzeko eskabide oso bat egingo da. Proiektuaren koordinatzaile-lanetan jarduten duen ikertzaile nagusiak egoera horren eta koordinatzen dituen taldeen berri ematen duen idazki bat erantsi beharko die gainerako agiriei, talde bakoitzaren arduradunek sinatuta, adostasun adierazle gisa.

11. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzen eskabideetan daturen bat bete gabe utzita bada, edo eskatutako agiri guztiak erantsi gabe badaude, interesdunari hamar eguneko epea emango zaio falta dena osatzeko edo eskatzen diren agiriak eransteko, eta, halaber, jakinarazi egingo zaio, horrela egiten ez badu, eskabidean atzera egin duela joko dela; dena den, Administrazioa beharturik dago eskabide horri buruzko berriazko ebazpena ematera eta berau jakinaraztera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatzen denaren arabera.

12. artikulua.– Eskabideak balioestea.

Behar bezala aurkeztutako edo epean zuzendutako eskabideak Balioespen Batzordeak ebaluatu eta hautatuko ditu, aurreko artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Batzorde hori artikuluko honetako lehenengo paragrafoan dago definituta.

1.– Balioespen Batzordeak honako kide hauek izango ditu: batzordeburu, Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendaria; bokalak: Aseguramendu eta

Kontratazio Sanitarioko zuzendaria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erakunde Publikoko Asistentzia Sanitarioko zuzendariordea, Lanbide-irakaskuntza eta -garapenerako zerbitzuko burua eta Osasun eta Kontsumo Saileko I+G Laguntzen teknikari arduraduna; azken horrek idazkari jardungo du.

2.– Balioespen Batzordeak proiektuak balioetsiko ditu, honako irizpide hauen arabera:

a) Proiektuen egokitzapena, deialdiko modalitate honetarako zehaztutako lehentasunezko eremu eta lerroak aintzat hartuta (I. eranskina): gehienez, 25 puntu.

b) Proposamenaren interesa Euskal Osasun Sistemarentzat: gehienez, 35 puntu.

c) Garrantzi zientifikoa eta sozio-sanitarioa –proiektutik espero diren ekarpenak barne direla–, eta helburuen berritasuna eta garrantzia: gehienez, 25 puntu.

d) Proiektuaren emaitzen zabalkunde- eta dibulgazio-plana: gehienez, 15 puntu.

60 puntuko gutxieneko puntuaziorik eskuratzen ez duten proiektuak ez dira proiektu finantzagarritzat hartuko.

3.– Proiektuak balioetsi aurretik, Balioespen Batzordeak kanpo ebaluatzaileen parte-hartzea eskatuko du; ebaluatzaile horiek proiektuen kalitate zientifiko-teknikoari buruzko txostenak egingo dituzte, honako alderdi hauek balioetsiz eta aztertuz:

a) Proiektuan programatutako jarduerak gauzatzeko ikertzaile nagusiaren gaitasuna edo dedikazioa, baita gainontzeko ikerkuntza-taldearen tamaina, osaera eta dedikazioa ere: gehienez, 20 puntu.

b) Metodologiaren kalitatea: gehienez, 40 puntu.

c) Proiekturako eskatutako finantza-baliabideen eta proposatutako helburuen arteko egokitzapena, eta beste entitate publiko eta pribatu batzuekin batera proiektua finantzatu izana egiaztatzea: gehienez, 15 puntu.

d) Osasun-sisteman aplikagarri eta erabilgarri izatea: gehienez, 25 puntu.

Txosten zientifiko-teknikoan proiektuek 50 puntuko gutxieneko puntuazioa eskuratzen ez badute, Balioespen Batzordeak ez ditu finantzatzeko moduko proiektutzat hartuko.

4.– Bere eginkizuna betetzeko, Batzordeak eskubidea dauka zentro eskatzaileei proiektua erabat ulertzeko beharrezkoak diren agiri osagarriak eskatzeko, bai eta zentro eskatzaileei proiektuen zenbait aldaketa iradokitzeko ere, programa honen helburuetara hobeto egokitu daitezen.

13. artikulua.– Kuantifikazio-irizpideak.

1.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Balioespen Batzordeak honako hauek hartuko ditu aintzat: aurkeztutako aurrekontua, deialdia finantzatzeko dauden baliabide ekonomikoak, eta helburuak lortzeko aurkeztutako aurrekontuaren egokitzapena. Halaber, kanpo ebaluatzaileek txostenean emandako iritzia hartuko du kontuan Batzordeak, eta 8. artikuluan ezarritakoa aplikatuko du.

Emandako laguntzek eskatutakoa osorik eta zati batean estali ahal izango dute, baina, edozein modutan, baterako finantzaketa kontuan hartuz, diruz lagundutako jardueraren kostu erreala ezin izango da inolaz ere gainditu.

2.– Koordinatutako proiektuak direnean, azpiproiektu bakoitza independentetzat hartuko da, artikulua honen ondorioetarako.

14. artikulua.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua, publizitate-prozedura eta laguntzaren onarpena.

1.– Eskabideak prozedura bakar batean izapidetuko dira, eta prozedura hori ebaztea, eskatzaileek planteatutako gai guztiak barne direla, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari dagokio, Balioespen Batzordearen proposamenez, betiere.

2.– Ebazpenean erabakiko da agindu honetako diru-laguntzak ematen diren edo ukatzen diren. Ematen direnen kasuan, honako hauek zehaztuko dira: zentro onuraduna, diruz lagundutako proiektua eta emandako diru-zenbatekoa -urtealdietan banakatua. Ukatzen direnen kasuan, berriz, ukatzeko arrazoiak adieraziko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, zentro interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkez dezakete Osasun eta Kontsumoko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

4.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da; horretarako epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren ebazpena argitaratu ez bada, zentro eskatzaileek euren eskabidea ezetsitzat jo dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

5.– Finantzazioa jasoko duten zentroek diru-laguntza emango zaiela dioen idazkia jasoko dute, bai eta onarpen-agiriaren eta laguntzaren datuei buruzko agiriaren bi ale ere. Azken agiri horretan, laguntzaren zenbatekoa azalduko da, urteka eta gastu-motaren arabera banakatuta; halaber, eskabidearen memorian adierazitako kontzeptuetatik diruz lagunduko direnen zerrenda jasoko da, bai eta, hala badagokio, bekaduna onartzeko agiria ere. Onarpen-agiriaren, laguntzari buruzko datuen agiriaren eta, hala badagokio, bekaduna onartzeko agiriaren ale bana Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari itzuli beharko zaizkio, hilabeteko epean, beteta eta zentroaren legezko ordezkariak eta ikertzaile nagusiak izenpetuta.

15. artikulua.– Zentro onuradunen betebeharrak.

Diru-laguntzak jasotzen dituzten zentro onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

1.– Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntzaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean aurreko artikuluan zehaztutako agiriak Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzara bidaltzen ez baditu, onuradunak laguntzari uko egiten diola ulertuko da.

2.– Diru-laguntza eman den xede eta kontzeptuetarako erabiltzea.

3.– Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren egitekoak betetzeko, deialdi honetako diru-laguntzen inguruan eskatzen dituzten argibideak ematea.

4.– Eskabidean jasotako datu edo inguruabarretan edozein aldaketa gertatuz gero, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari ahalik eta lasterren jakinaraztea.

5.– Ikertzaile nagusiak eskabidean adierazitakoaren gainean aldaketaren bat egin nahi badu, aurrez baimena eskatu beharko dio Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari, eta horretarako arrazoiak ere eman.

16. artikulua.– Erakunde laguntzailea.

Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioak / B+I+O Eusko Fundazioak Osasun eta Kontsumo Sailaren erakunde laguntzaile gisa jardungo du, dirulaguntza-programa honen bitartez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zentroei emandako laguntzen kudeaketari eta ordainketari dagokionez; horretaz gain, honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Diruz lagundutako proiektuek diru-laguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzen jarraipena, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zentroen kasuan, diruz lagundutako proiektuek eragindako gastuen finantza-kudeaketa eta kontabilitate-kontrola, agindu honetan ezarritako eran, betiere.

c) Zentro onuradunak deialdian eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari administrazio-neurriak edo bestelakoak hartzeko proposamena egitea.

d) Agindu honetan xedatutakoaren arabera, laguntzak nori eman zaizkion Osasun eta Kontsumo Sailari justifikatzea eta aplikatu gabeko zenbatekoak itzultzea.

e) Laguntza ematea, aipatu funtsei buruz Osasun eta Kontsumo Sailak egin ditzakeen egiaztatze-jardueretan eta Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiei dagozkienetan.

17. artikulua.– Laguntzen ordainketa.

Onartutako laguntzen ordainketa honela egingo da:

1.– Urtebeteko iraupena duten proiektuak.

Esleitutako laguntzaren % 80 berehala transferituko zaie onuradunei, 14.5 artikuluan aipatzen diren agiriak jaso ondoren. Gainerako % 20a, 18. artikuluko 1.a.1 idatzi-zatian aipatzen den seihileko memoria zientifikoa aurkeztu ondoren (VI. eranskina). Zentro onuraduna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko bada, transferentzia erakunde laguntzaileari egingo zaio.

2.– Urtebetetik gorako iraupena duten proiektuak.

2.1.– Lehenengo urtealdiari dagokion laguntzaren zenbatekoa berehalakoan ordainduko zaie onuradunei –erakunde laguntzailearen bidez– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzukoak badira; eta onuradun zentroari, baldin eta ez bada Osakidetza-Euskal osasun zerbitzukoa. Nolanahi ere, ordainketa jasotzeko, aurretik, 14.5 artikuluan aipatzen diren agiriak behar bezala beteta aurkeztu behar dira.

2.2.– Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak memoria zientifikoa onartu ondoren eta proiektuak eragindako gastuak agiri bidez (VI. eranskina) justifikatu ondoren ordainduko dira ondorengo urteei dagozkien zenbatekoak; bai memoria, bai agiri bidezko justifikazioa urtero bidaliko dizkio onuradun zentroak zuzendaritza horri.

2.3.– Osakidetzako zentro onuradunek ere igorriko dituzte –erakunde laguntzailearen bidez– memoriak eta justifikazio dokumentala.

2.4.– Zentro onuradunak ikusten badu, justifikatutako arrazoiengatik ezin duela finantzaturiko ikerkuntza-proiektua gauzatu, ahalik eta azkarren jakinaraziko dio Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari, proiektuaren garapen zientifikoaren egoerari eta azken balantze ekonomikoari buruzko txostena erantsita.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak, espedienteaz aztertu ondoren, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeari proposatuko dio dagokion laguntzaren kitapena egiteko ebazpena hartzeko, eta dirua itzuli beharrik izanez gero, zenbatekoak zehaztuko dizkio.

2.5.– Osasun eta Kontsumo Sailak, komeni dela uste duen kasuetan, proiektuari jarraipen hobea egiten lagunduko duen informazio osagarria aurkezteko eska dezake.

18. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

1.– Laguntzak jaso dituen zentro onuradunak jasotako diru-laguntza zertan gastatu duen justifikatu beharko du, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari honako agiri hauek helaraziz:

a) Urtebeteko iraupena duten proiektuak.

1) Proiektua egiten hasi eta sei hilabetera, zentro onuradunak memoria zientifiko bat egin beharko du, VI. eranskinean azaltzen den eskemari jarraituz, eta Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari bidali beharko dio. Memoria horretan, proiektuaren garapen-egoerari eta lortutako helburu partzialei buruzko deskribapen bat egin beharko da, eta ikertzaile nagusiak izenpetuta aurkeztuko da.

2) Proiektua egiteko epea amaitu ondorengo hiru hilabeteetan, amaierako memoria zientifiko bat bidaliko du zentro onuradunak –V. eranskineko eredu normalizatuaren arabera eginda–, eta, horrekin batera, memoria ekonomiko bat –laguntzaren erakunde kudeatzailearen legezko ordezkariak eta ikertzaile nagusiak izenpetuta– (ale bitan bidaliko ditu memoria horiek zentro onuradunak); halaber, VII. eranskina ere bidaliko du, eta, hor, proiektuaren garapenari buruzko laburpen bat bilduko du, Osasun eta Kontsumo Sailaren web orrian argitaratuko dena. Memoria ekonomikoarekin batera, proiektuaren garapen-aldian egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko fakturak edo horien kopia konpultsatuak aurkeztuko dira.

b) Urtebetetik gorako iraupena duten proiektuak.

Urteko memoria zientifiko eta ekonomikoa, laguntzaren onarpen-ebazpenean adierazitako epean aurkeztua, eta VI. eranskinean azaltzen den eskemaren arabera eginga. Memoria horretan, proiektuaren garapen-egoerari eta lortutako helburu partzialei buruzko deskribapen bat egin beharko da, eta ikertzaile nagusiak izenpetuta aurkeztuko da. Memoria ekonomikoa ikertzaile nagusiak eta laguntzaren zentro kudeatzailearen legezko ordezkariak izenpetuko dute, eta, hartan, memoriak hartzen duen aldiari dagokion balantze ekonomikoa egingo da.

Proiektua egiteko epea amaitu ondorengo hiru hilabeteetan, amaierako memoria zientifikoa bidaliko du zentro onuradunak –VI. eranskineko eredu normalizatuaren arabera eginda eta ikertzaile nagusiak izenpetuta–, eta, horrekin batera, memoria ekonomikoa –laguntzaren erakunde kudeatzailearen legezko ordezkariak eta ikertzaile nagusiak izenpetuta– (ale bitan bidali behar ditu memoria horiek zentro onuradunak); halaber, VII. eranskina ere bidaliko du, eta, hor, proiektuaren garapenari buruzko laburpen bat bilduko du, Osasun eta Kontsumo Sailaren web orrian argitaratuko dena.

2.– Zentro onuradunek honako hauek erantsiko dizkiete urteko memoriei eta amaierako memoriari: memoriak hartzen duen aldian egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko fakturak edo horien kopia konpultsatuak, aurreko memoriekin aurkeztu ez direnak.

3.– Jarraipen-memorien aldeko balioespenak eta hurrengo urterako laguntza ordaintzeak ez dakarte berekin egindako gastuen onarpena, ez eta gastuok aurrekontuei egoztea ere; izan ere, egozpena egitea ala ez amaierako memoria ekonomikoarekin batera balioetsiko da.

4.– Amaierako memoriarekin batera, ikerkuntzaren ondorioz sortu diren argitalpen, tesi, karrera amaierako proiektu eta kongresuetan eginiko komunikazio guztien kopia bana aurkeztuko da, halakorik izanez gero. Horietan guztietan, eta geroago sor litezkeenetan, berariaz aipatu behar da Osasun eta Kontsumo Sailak emandako laguntza. Ikerketaren emaitzak ahalik eta erabiltzaile gehienek ezagut ditzaten, Osasun eta Kontsumo Sailak finantzatutako proiektuei buruzko artikulak argitaratu emango dira, eta horretarako, lehentasuna izango dute sarrera libreko aldizkariak, bai eta argitaratu eta urtebeterra sarrera librekoak izango direla bermatzen dutenek ere.

19. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

1.– Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein baldintza aldatzen bada –betiere, laguntzaren xedea beteta–, eta beste edozein erakunde publiko zein pribatutatik beste diru-laguntzaren bat aldi berean jasotzen bada, laguntzaren zenbatekoa aldatu ahal izango da. Horretarako, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak dagokion gutxitze-ebazpena emango du, emandako laguntzaren zenbatekoa egokitzeko.

2.– Proiektuaren garapen-prozesuan, gastu jakin batzuetara bideraturiko zenbateko partzial batzuetan aldaketak egitea beharrezko iritziz gero –betiere, laguntzaren guztizkoa gainditu gabe–, aldeztu aurretik, proiektuko ikertzaile nagusiak idatziz egin beharko du eskabidea, horretarako arrazoiak emanez, eta zentro onuradunaren legezko arduradunaren oniritziarekin.

Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzari zuzenduko zaio eskabidea.

3.– Proiektuaren amaiera atzeratzen bada –zentro onuradunaren borondatearekin zerikusirik ez duten eta behar bezala justifikatzen diren arrazoiengatik–, eta hasiera batean proiektua garatzeko ezarritako epea bukatu baino lehen idatziz jakinarazten bada hori –zenbateko luzapena eskatzen den zehaztuta–, Osasun eta Kontsumo Sailak proiektua amaitzeko epea luzatu ahal izango du.

20. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea.

1.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera (698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen berme eta ordainketen erregimena arautzen duena), onuradunak baldintzak eta epeak betetzen ez baditu, edota beka beste helburu baterako erabiltzen badu, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu eta, hala badagokio, jasotako diru-zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar dizkiola deklaratu da, prozedurazko izapideak egin ondoren, eta hargatik eragotzi gabe bidezko izan daitekeen beste ekintzarik egitea. Aipatutako diru-kopuru guztiak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Ez-betetzeagatiko espedienteari hasiera eman eta izapideak egiteko eskumena Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariak izango du, eta horri buruzko ebazpena emateko eskumena, berriz, Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordeak.

2.– Ez-betetzea dela-eta, laguntza itzuli behar izanez gero, laguntzaren zentro onuraduna izango da erantzulea, Osasun eta Kontsumo Sailaren aurrean.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari; beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango diote, Osasun eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahalko dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.— Ebazpen honetan aurrez zehaztu ez diren gaietarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa beteko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean emandako idazkera aintzat hartuta, betiere.

Hirugarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 17a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

I. ERANSKINA

LEHENTASUNEZKO IKERKUNTZA-EREMUAK ETA -ILDOAK

Giza osasunaren gaineko ikerkuntza traslazionale, honako arlo hauetakoa:

- a) Nerbio-sistema, gaixotasun neurologiko eta mentalak.
- b) Giza garapena eta zahartzea.
- c) Gaixotasun infekziosoak.
- d) Minbizia.
- e) Gaixotasun kardiobaskularrak.
- f) Diabetesa eta obesitatea.
- g) Gaixotasun arraroak.
- h) Arnasbideetako gaixotasunak.
- i) Ibiltze-aparatuko eta ehun konektiboko gaixotasunak.
- j) Aparatu digestiboko gaixotasun kronikoak eta hanturazkoak.
- k) Giltzurruneko gaixotasunak.
- l) Osasun zerbitzuak, teknologia sanitarioak eta telemedikuntza.

Ekintza bidezko Ikerkuntza, eta Teknologien eta Zerbitzu Sanitarioen Ebaluazioa:

- 1.– Epidemiologia, osasun publikoa eta osasun okupazionala.
- 2.– Osasun-determinatzaileen, arrisku-faktoreen eta bizimodu osasungarriaren gainean proaktibotasunez eragiteko proiektuak.
- 3.– Herritarren eginkizuna eta jokabide arduratsua eta pazientearen autonomia indartzea.
- 4.– Kontsumo osasungarria, Sailaren eskumenpeko eremuetan.
- 5.– Gaixo kronikoentzako arreta hobetzea.
- 6.– Laguntza-prozesuen integrazioaren garapena: zaintzen jarraitutasuna hobetzea.
- 7.– Jardun klinikoa eta autozaintza errazten dituzten teknologien garapena.
- 8.– Eginkizun profesional berrien garapena.
- 9.– Osasun arloko profesionalen parte-hartzea eta haiekiko lotura.
- 10.– Ikerkuntzaren eta Berrikuntzaren emaitzen antolamendua eta ezarpena hobetzea.
- 11.– Gobernu Ona, kudeaketa sanitario publikoan. Osasunean inbertitzea, garapen sozial eta ekonomikoa sustatzeko.